

berezi bat, sentitzeko modu bat, kultura txuriak edo garaiko langile kulturak ematen ez ziona. Eta nik uste hortik datorrela pixka bat. Nire kasuan soulak eta musika beltzak ematen dit baliabide hori espresiorako, bizitzeko, emozionatzeko, sentitzeko. Eta nire azpikulturarekiko gustu hori ere hortik dator. Azkenean, mod azpikulturaren edo skinhead azpikulturaren musika beltza izan da horien musika, soula, reggaea eta abar.

Eta fanzineek zein paper dute horretan? Ez dira egungo ohiko baliabidea.
Nik uste dut gaur egun kapitalismoak gure eskura jarri dituela teknologia asko, eta haien helburua dela gure gaitasun mentala edo argitasuna murriztea. *Scroll* etengabea egitea Instagramarekin, gure atentzia murriztea, eta fanzineek horren kontrakoa ematen dute, beste erritmo batean doaz. Fanzineak sortzea, idaztea, maketatzea... edo lehen egiten zen bezala, moztea, pegatzea... Eta baita irakurtzea ere, artikulatu bat, narrazio txiki bat edo poema bat. Uste dut hein handi batean dela kapitalismo heteropatriarkalaren kontra egitea, ezarritako bizimoduaren kontra. Eta bestetik, kontrakomunikatzeko erreminta oso potentea dela, gure gauzen inguruan hitz egiteko eta partekatze.



la 400 fanzinez betetako bilduma ondu dute. LURPEKO KAIAERAK

Esango zenuke anakronikoak direla fanzineak? Garaiz kanpo gelditzen ari dira?
Kapitalismoaren ikuspuntutik agian bai. Baina nahi badugu kultura berri bat sortu, agian kontuan hartu beharreko tresna bat dira fanzineak. Azken finean, autogestiotik sortutako tresnak dira, komunikatzeko, gure edukiak sortzeko maite ditugun gauzen inguruan. Horrela ez dirudi oso potentea denik, baina nik uste potentzialitate handia duela disidentziarako eta komunikaziorako. **Digitalizazio garaian, eta interneten hainbesteko kontrola**

dagoenean, fanzineak izan daitezke horri izkin egiteko modu bat?
Lehen aipatutako haritik tiraka, nik uste dut baietz. Egia da gaur egun fanzine askok erabiltzen dituztela sare sozialak-eta, baina badaude asko eta asko hortik kanpo. Agian horiek bakarrik topatu ditzakezu hemen, Eva Forest Liburutopian, edo lagun baten bitartez lortu... sareak sortzen dira hor, komunikazio sareak. Baliagarri dira gauzak beste modu batean pentsatzeko. Beno, fanzineak eta beste gauza asko ere bai, baina fanzineak horren barruan. ■

M Mendinga Optika

150 urte zure ondoan

www.mendiaoptika.eus

III LASTERKETA SOLIDARIOA. OIOM
Aspanafoaren alde
2025EKO APirilak 6

MARTXA

5KM

10:00

10€

TXIKI LASTEREKETA 1KM

12 URTERARTE

11:15

3€

LASTERKETAK 5KM ETA 10KM

+ 13 AÑOS


11:30

INSKRIPZIOAK:

URTARRILAREN 7TIK OTSAILAREN 15ERA: **15€**

OTSAILAREN 16TIK AURRERA: **18€**

KRONOMETRAJE PROFESIONAL!



Desnibel positiboa: 45m.
Gehieneko altuera: 463m.
5km: Itzuli bat ibilbideari.
10km: 2 itzuli ibilbideari.

IBILBIDE IRISGARRIAK



PLAZA NAGUSIA



INSKRIPZIOAK/INFORMAZIO GEHIAGO



WWW.KRONOAK.COM

ETA GAINERA:

10:00-13:00 HAURENTZAKO JARDUERAK PLAZA NAGUSIAN.

11:00-14:00 DJ GUATEQUE DISCO PLAZA NAGUSIAN.

14:30 HERRI BAZKARIA TOKI ALAI FRONTOIAN. **12€** /PERTSONA.

18:00 CONCIERTO EN PLAZA MAYOR.

IZENA EMAN MARTXOAK 31 BAIKO LEHEN
608 85 65 90 ZENBAKIAN WHATS APP
BIDEZ

ANTOLATZAILERAK:

